



Izenburua	Erdaldunak euskarara eta euskara planetara hurbiltzeko hausnarketa saioak
Egileak	Saioa Lizarralde, Gorka Blanco.
Data	2011/02/09

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
1. Sarrera.....	3
2. Oinarri teorikoa.....	4
3. Erdaldunak erakartzeko hausnarketa saioak.....	6
4. Egindako praktikak.....	11
5. Informazio osagarria.....	14

1. Sarrera

Euskara planak martxan jarri zirenetik asko aldatu da enpresen edo administrazioen tipologia. Hasieran, eskualde euskaldunetan zeuden enpresek abiatu zituzten planak, eta bertako langileen portzentaje altua euskalduna zen.

Gaur egun, gauzak aldatzen ari dira. Euskara planak Euskal Herri osoan barna ari dira hedatzen, bai euskaldunen portzentaje altua duten eskualdetan eta Euskal Herriko hainbat zonalde erdaldunetan ere. EMUNek, esate baterako, Gasteizen, Basaurin eta Orkoienean ditu euskara planak abian.

Ponentzia honen bidez, erdaldunei euskara planaren norabidea erakutsi eta bertan parte hartzeko aukera emateko prestatu ditugun hiru hausnarketa saioak aurkeztuko ditugu. Horrekin batera, enpresa batean izandako esperientzia pilotuaren emaitzak erakutsiko ditugu.

2007az geroztik, EMUNen, erdaldunek euskara planetan izan behar duten parte hartzearen inguruan hobekuntza proiektu bat martxan izan dugu urtero. Lau urte hauetan egindako lanetik bi emaitza esanguratsuenak aurkeztuko ditugu.

Aipatutako bi emaitza horiek kezka bikoitz batetik abiatu ziren. Batetik, erdaldunekin lan egiteko metodologia eta tresnak faltan genituela ikusten genuen. Proposatzen genituen ia ekintza guztien hartzaileak euskal hiztunak ziren. Beraz, lehen proiektuaren helburua erdaldunek euskara planean parte hartzeko bideak proposatzea zen.

Baina beste hutsune bat ere definitu genuen: euskararen normalizazioan dihardugunok erdaldunengana hurbiltzeko daukagun zailtasuna eta haien gainean ditugun aurreiritziak. Erdaldunek euskara planetan parte hartzea nahi bagenuen, lehenengo geure buruarekin lan egin behar genuela konturatu ginen.

Joxpi Irastortzaren doktore tesiaren ¹marko teorikoa oinarri hartuta, euskaldunen motibazioan eta azken batean portaeran eragiteko EMUNen egindako lana erdaldunen mundura ekarri nahi izan dugu. Oinarri teoriko horretatik abiatuta, hiru saioen bitartez erdaldunen motibazioan eragin nahi da.

Hiru saio horien proba pilotua gure hainbat enpresatan egin dugu dagoeneko. Esperientzia hori ikusita, uste dugu saio interesgarriak direla euskara planetan estrategikoak izan daitezkeen erdal hiztunen motibazioa areagotzeko, bai enpresetan zein herrietan.

¹ Irastortza, Joxpi. *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatetik helburuak lortzera*. 2010eko uztaila.

2. Oinarri teorikoa

Ponentzia honen sarreran aipatu dugun bezala, erdaldunak euskarara eta euskara planetara hurbiltzeko hausnarketa saioek Joxpi Irastortzaren tesian dute sustrai teorikoa. Ondorengo atalean Irastortzaren lana laburbiltzen saiatuko gara, kontzeptuak argitu eta irakurlea hausnarketa saioen oinarri teorikoan kokatu. Gai honen inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, ponentziaren 5. atalean hainbat esteka interesgarri aurkituko dituzue.

Motibazioa portaeraren hasiera, norantza eta mantentzea azaltzen laguntzen duen konstrukt² hipotetiko, konplexu eta dinamikotzat hartzen da. Motibaziorik gabe ez dago mugimendurik, ezta jarduera psikikorik ere, eta ezinezkoa da portaera bat gauzatzea.

Motibazioa da **ekintzak abian jartzeko mugitzen gaituen indarra**. Motibaturik gaude zerbait egiteko borondatea dugunean, eta gainera, lortu nahi dugun helburuak eskatzen duen denboran esfortzua egiteko prest gaudenean.

Aurrez esan dugunak pentsaraz diezaguke bestea motibatzea ezinezkoa dela, baina, ez. Posible izan, bada, zaila izan arren. Bestearen mundua ulertzeko era aldatzeko edo aldatzen laguntzeko, beharrezkoa da **jarreraren oinarrizko printzipioak** kontuan hartzea eta horiek abiapuntu gisa erabiltzea jarrerak era eraginkorrean lantzeko.

Motibatzeko dugun gaitasunak bestearengan dugun eraginarekin dauka zuzeneko harremana. Bestearengan eragin handiagoa izango dugu besteak guk esandakoei erreparatzen badie, guk esandakoak entzuten baditu, guk esandakoak aintzat hartzen baditu. Baina, paradoxikoa bada ere, besteak gu entzun gaitzan, lehenengo guk bera entzuten ikasi behar dugu.

Portaera baten zergatia eta motibazioa kontzeptua bat datozela esan dezakegu. Motibazioak portaeraren atzean dauden arrazoiekin du zerikusia. Arrazoi horiek gutxienez bi eratara azter daitezke:

² Konstrukt^u: demostrazioak diren kontzeptuak edo ideiak

1. Zergatik? Portaeren zergatiek azken kausarekin dute zerikusia.
2. Nola? Portaerak nola gertatzen diren azaltzeko hurbileko kausak aztertu beharko ditugu.

Azken batean, motibazioa da **pertsona zerbait egitera bultzatzen duen barne-prozesua, bultzada horren bitartez barne edo kanpo gertaeraren bat eraginda.**

Baina nola bultzatu motibazio hori? Teoria ezberdinak daude motibazio hori eskuratzeko bideen inguruan. Joxpi Irastortzaren tesia oinarri hartuta, berriro ere, hizkuntza **motibazioan eragiteko biderik eraginkorrena hausnarketarena dela uste dugu**, hau da, kognizioa lantzeak motibazioan eragin zuzena izango du. Bere hitzak erabiliz:

“euskarari buruz gehiago jakiten saiatuz, euskararen gainean gogoeta eginez, gehiago erabiltzeko arrazoiak bilatuz eta esperientziak metatuz, azken batean, gure pentsamendua eta kognizioa garatuz, esatetik egitera jauzi egingo dugu. Eta, helburuak beti lortuko ez baditugu ere, lortu ez izanaren arrazoiak aurkitzen ahaleginduko gara eta ekintza zuzentzaileak proposatu.”

Beraz, eta teoria hau kontuan hartuz, erdaldunak euskarara eta euskara planetarako erakartzeko hausnarketa saioak bultzatzera jo dugu, horrela kolektibo hau euskara planetara eta euskararen komunitatera hurbilduko dugula ziur baikaude.

3. Erdaldunak erakartzeko hausnarketa saioak

- Lan honen hasieran aipatu dugun moduan, hausnarketa saioen helburua enpresako erdaldunak euskara planera hurbiltzea da. Horretarako 3 hausnarketa saio prestatu genituen, euskara planaz, urratsak emateko garrantziaz eta denen parte hartzearen ezinbestekotasunaz hausnartzeko xedez. Atal honetan, hausnarketa saioak aletuko ditugu.
- 1. SAIOA: ¿HACEMOS UN PLAN?
- Saioaren helburua: enpresako euskara planaren inguruan hitz egitea. Planaren gainean duten iritzia jasotzea.
- Edukiak: planen inguruan hitz egiten hasiko gara, orokorrean. Binaka edo hirunaka jarrita, asteburuko plan bat egiteko eskatuko diegu. Talde bakoitzak bere plana aurkeztuko du eta zer hartu duten kontuan aipatuko dugu guztion artean (helburua, epeak, bitartekoak, parte hartzaileak...). Planek dituzten elementuak aztertu ondoren, enpresan dauden plan ezberdinak identifikatuko ditugu. Bakoitzak helburu, erritmo, parte hartzaile, egitura... ezberdinak dituztela aipatuko dugu.




- Planei buruz orokorrean hitz egin ondoren, euskara planetara hurbilduko gara. Aurrez ikusitako definizio orokorretatik abiatuta, euskara plana definitzen saiatuko gara.
- Enpresako euskara planaz zer dakiten galdetuko diegu. Zer egiten den, zertarako den...Beraiek esandakoak osatzeko, planari lotutako irudiak erakutsiko dizkiegu.
- Saioko unerik garrantzitsuena iritziak biltzearena da. Iritziak bildu ahal izateko galdera sorta aldeztatik ondo prestatuko dugu. Asmoa da galdera horien bidez planaren inguruan dituzten iritziak, sententziak, bizipenak...ezagutu eta denon artean bateratzea.
- Saioa amaitzeko, bi pertsona ezagunen iritziak (kontrakoak) entzungo ditugu. Horien inguruan zein iritzi duten, horrelako iritzien aurrean zer esango luketen galdetuko diegu.
- 2. SAIOA: ¿UTOPÍA?
- Saioaren helburua: gure helburuak lortzeko urratsak emateak duen garrantziaz hausnartzea. Ahaleginaren bidez emaitzak lortzeko aukera dagoela komentatzea.
- Edukiak: Eduardo Galianoren aipamen bat entzunez hasiko dugu saioa. Helburura bidean, urratsak emateak duen garrantziaz aritzea da asmoa.



- Aipamenak dioenez, urratsak eman ahala helburuak ere atzera egiten duela eta etengabe aurrera urratsak emateko balio duela utopiak. Helburura iristea lorgarria dela ikustarazteko, hainbat pilotari adierazpenak euskaraz eginez ageri diren bideoak ikusiko ditugu. Euskara ikastea helburu gisa izan duten pertsonak dira. Ezagutzen dituzten ala ez galdetuko diegu, egindako aldaketaren jakitun ziren ala ez. Bideokoen gisako esperientzia izan duen norbait ezagutzen duten galdetuko diegu.
- Bakoitzak izan duen esperientzia kontatzeko eskatuko diegu. Euskara ikasteko ahaleginik egiten duten ala ez. Nolako esperientzia izan zen. Zerk bultzatu zituen ahalegina egitera. Euskara ikasteko prozesurik abiatu ez dutenen kasuan intentziorik izan ote duten ala ez, eta izan badute zergatik ez duten garatu...
- Bakoitzaren esperientzien arabera irteten diren elementuak kontuan hartuta, Txepetxen teoriako hiru elementuen arteko elkarreragina aipatuko dugu. Azterketa hori enpresaren egoerara ere ekarriko dugu.
- Enpresa kokatuta dagoeneko ingurunekeo datu soziolinguistikoak ikusiko ditugu. Gehiago ala gutxiago, seguruenik datuak denboran aldatzen joango ziren. Ondoren, enpresako datuak ere aztertuko ditugu.
- Erretzeari uzteko ahalegina ezaguna da, adibidez. Parte hartzaileen artean helburua lortu duenik badagoen galdetuko dugu. Norbaitek saiakera hori egin du? Helburua lortu duen norbait ezagutzen duten galdetuko dugu, eta esperientzia horretan arrakastarako gakoak zeintzuk izan diren galdetuko diegu. Elementu horien inguruan hitz egingo dugu. Intentzioa, gaia ezagutzea, ideiak argi izatea, bitarteko egokiak izatea...

- Sarri entzuten da, adibidez, euskara ikastea beste hizkuntza batzuk ikastea baino zailagoa dela. Madrilgo unibertsitate autonomoko katedradun batek esandakoa aztertuko dugu.
- Eta ahalegina eginez gero, posible da helburuak lortzea. Bideo baten bidez ikusiko dugu adibide bat.
- 3. SAIOA: ¿CÓMO AVANZAR?
- Saioaren helburua: Euskara Planak guztion ekarpena behar duela ikustea eta euskara planak aurrera egiteko ideiak biltzea.
- Azken saioa izango denez, azken saioaren beste helburu bat balorazio orokorra egitea izango da.
- Edukiak: puzzle bateko piezak banatuko ditugu parte hartzaileen artean. Piezak elkartuta puzzlea osatu beharko dute. Ariketa zergatik egin dugun galdetuko dugu, euskara plana guztion artean osatuko dugula irudikatu nahi izan dugula baieztatzeko. Hori da saio honetan lortu nahi duguna, hots, bakoitzak bere piezatxoa jartzea planak izan beharko duen/lukeen garapena zehazteko orduan.



- Euskara Planak duen egitura emanda, atal bakoitzean kokatuko ditugu gure ideiak. Ondoren, horiek zerrendatuta

ditugula, eskema orokorrean ideia zehatzak kokatzen saiatuko gara.

- Eskema osatutakoan, taldearen argazkia aterako dugu, beraien ekarpenarekin.
- **BALORAZIOA**
- Saioak baloratzeko ondorengo puntuen inguruko iritzia eskatuko diegu parte hartzaileei:
- Nola sentitu diren: gustura egon diren
- Metodologia: modua gustatu zaien
- Era horretako gogoeta saioen beharrik badagoen.
- Iradokizunak: ondo egindakoak eta hobetu beharrekoak
- Iritzia emateko dianak jarriko ditugu eta gometxeekin (koloretako pegatina borobilak) dianaren erdigunetik kanpo alderako tartean kokatuko dituzte. Erdian balorazio onenak kokatuko dituzte eta dianaren kanpo aldean berriz, balorazio okerrenak.

4. Egindako praktikak

- Saio hauen proba pilotua Gasteizen dagoen Electra Vitoria Koop. E.an egin genuen. Egun 256 langilek osatzen dute Electra, eta horietatik %69 erdalduna da, %8 euskalduna eta %23k euskara ulertzen du baina ez du hitz egiten. Saio hauek zergatik antolatu ziren ulertzeko garrantzitsua da testuingurua ezagutzea.
- Electra Vitoria Koop. E.an 2010 urtean, lanketa kolektibo batetik lanketa pertsonalera pasa behar zirela ikusi zuten. Horretarako TELP tailerra antolatzea pentsatu zuten, nolabaiteko kontzientzia linguistikoa duten euskal hiztunei zuzendua. Baina eskaintza hau oso perfil zehatza zuen jendearentzat soilik zela ikusita, egokiena hausnarketa saio hauek euskararen inguruan sentsibilitate berezi bat zuen edozeini zabaltzea pentsatu zuten eta ez soilik euskal hiztunei. Azken finean, norbanakoaren errealitateak, beharrak eta pertzepzioak desberdinak dira. Hausnarketa horretatik, bakoitzaren perfilaren arabera hiru tailer eskaintzea erabaki zuten, euskara ez zekitenentzat (Y tú también), euskara jakin bai baina hitz egiteko ohiturarik edo erraztasunik ez zutenentzat ([Eztaumusik](#)) eta kontzientzia linguistikoa zuten euskal hiztunentzat ([TELP](#)).
- Erdaldunei zuzendutako saioetan 22 pertsonak eman zuten izena. Parte hartzea bermatze aldera bi taldetan banatzea erabaki genuen, eta, horrela, tailerrak iraun zuen hiru egunetan bi talde aritu ziren paraleloki lanean, bi orduko saiotan egunero. Nabarmenezkoa da esparru guztietako parte hartzea egon zela, departamentu, profesio eta organo guztietako ordezkariak parte hartu zutela.

- Balorazio oso positiboa egin zen, bai kuantitatiboa eta baita kualitatiboa ere. Jende askok parte hartu zuen, jende berriak, orain arteko ekintzetan inoiz parte hartu ez zutenak. Bestalde partaideek oso balorazio ona egin zuten, eroso sentitu ziren, eta aurrera begirako pausuak emateko prest azaldu ziren.
- Nabarmentzekoen artean honako hauek aipatuko genituzke:
 - Orokorrean parte hartze handia
 - Esparru guztietako jendeak parte hartu zuen (departamentu desberdinak, profesio desberdinak eta organo guztietako kideak)
 - Hitz egiteko eta hausnartzeko beharra ikusi zen.
 - Partaideak eroso sentitu ziren. Pozik. Gustura.
 - Aberasgarria izan zen, bai pertsonalki eta bai kolektiboki.
 - Jende berria gerturatu zen.
 - Barneratu egin zuten beraiek ere planaren parte zirela.
 - Dena dela kontuan izan behar dugu nahiz eta tailer hauek erdaldunei zuzendutakoak izan, ezin ditugula erdaldun guztiak maila berean jarri. Hartzailearen perfila gehiago zehazteko beharra identifikatu dugu. Sarritan planetan erdaldunak inplikatzeko dira eta, ondorioz, ezaguna izaten dute Plana; hori dela eta, ez dute Planaren inguruko informaziorik behar. Beraz, beharrezkoa da tailerrak ematerakoan ezagutza maila zehaztea, ezagutza linguistikoa batetik eta Planarekiko ezagutza bestetik.
 - Saio hauetan, batez ere, jendeak hitz egiteko beharra duela ikusi dugu. Nahiz eta askotan parte hartu ez, Planaren inguruko iritzi bat dutela eta hortaz hitz egiteko foro egokirik ez dutela. Saio hauek horretarako balio izan dute, orokorrean euskararen inguruan hitz egiteko eta norberak bere ikuspuntua emateko. Hau posible izan da talde txikietan lan egin dutelako, konfiantza giroan eta, ondorioz, eroso sentitu direlako. Beraiek

ere Planaren parte direla jabetu dira eta lan egin dezaketela, beraien iritzia garrantzitsua dela eta kontuan hartzen dela. Euskara Plana irekia dela ikusi dute.

- Tailerra eman genuenetik denbora gutxi pasa den arren, dagoeneko emaitza batzuk ikusten hasi gara, tailer honetan parte hartutako bost pertsonak euskara eskoletan izena eman baitute.

5. Informazio osagarria

<http://www.lantalan.com/220>

<http://www.baisarean.org/2010/11/10/jarreratik-portaerara-jauzi-egiteko-gakoa-joxpi-irastortza/>

<http://www.argia.com/albistea/joxpi-irastortza-lantokia-euskalduntzeko-ez-da-aski-hiru-urteko-plana>



EMUN Koop. E.
Uriburu, 9 behea · 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
T_ (+34) 943 711847 · F_ (+34) 943 793 426
emun@emun.com · www.emun.com / www.lantalan.com